

9. Kostuen egitura

Proiektu guztiek gastuak dituzte, sortzeko orduan. Gastuak izaten dira: Gastu finkoak, denborarekin gastu horiek ez dira aldatzen, beste aldetik, gastu aldakorrak ekoizten dugunaren arabera, prezioa aldatzen da. Ekonomia eskalan, zenbat eta gehiago ekoitzi, orduan eta merkeagoak izango dira unitateko kostuak.

Gure kasuan, gastu finkoak izaten dira alde batetik euskarriak diseinatzeko eta muntatzeko oinarritzko tresnak erostea, prototipoak sortzeko diseinu eta analisi softwarerako harpidetza eta patenteen erregistroa gure ideia babesteko. Gastu aldakorran berriz izaten dira alde batetik euskarri-multzo bakoitza fabrikatzeko beharrezkoak diren materialak, hala nola sentsoareak eta euskarriak, beste aldetik, hortz-gailuekin batera doan mugikorretarako aplikazioaren garapena eta Marketin-gastuak gure ideia sare sozialetan eta eskoletan sustatzeko. Eskala ekonomian, brackets gehiago ekoiztean, hornitzaileek deskontuak edo material gehiago ematen digute.

Garrantzitsua da argi edukitzea zenbat behar dugun proiektua ebazteko eta nola murriztu ditzakegun gastuak ideia garatzen dugun bitartean.